

Helduen eskola berria inauguratu dute

Lasarte-Oriako H.H.I.ren egoitza Osasun Zentroko hirugarren solairuan dago orain

Hasiera batean ikasturte berriarekin egoitza aldaketa izango zela aurreikusita bazegoen, azkenean urtearen amaiera arte itxaron behar izan dute Lasarte-Oriako H.H.I. Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikasle eta irakasleak Osasun Zentroko hirugarren solairura joateko. Azkenean iritsi da eguna, eta asteartean instalazio berriak inauguratu ziren.

Inaugurazio ekitaldian Jesus Maria Zaballos Lasarte-Oriako alkatea, Julen Bengoetxea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako ordezkariak zuzendariak izan zuten zinta mozteko ardurak eta ohorea. Hauetaz gain, herriko zinegotzi, H.H.I.ko zuzendaritza taldea eta ikasle mordoa bildu zen egoitza berriari ongi etorria emateko.

Zinta moztu eta aurkezpen ekitaldiarekin hasiera eman zioten agintariek.

Eraikin honen garrantzia

Denon jakinean dago inoiz ez dela berandu ikasten hasteko, eta hori argi geratu da Lasarte-Oriako H.H.I.ak hartu duen dimentsioa ikusita. Egun 400

ikasle eta 14 irakasle daude proiektu honen baitan. Hau guztia gogoratu eta "bizitza ikasketa prozesu bat da, inoiz ez zaio ikasteari utzi behar" adierazi zuen Jesus Maria Zaballos alkatea.

Julen Bengoetxea, Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako ordezkariak zuzendariak izan zuten zinta mozteko ardurak eta ohorea. Hauetaz gain, herriko zinegotzi, H.H.I.ko zuzendaritza taldea eta ikasle mordoa bildu zen egoitza berriari ongi etorria emateko.

Errealitate bihurturik

Eraikin zahar edo eraikin konpartituetan egon da orain arte H.H.I., baina asteartetik aurrera "beraiztat espresuki egin den lokala erabilgarri dute" azaldu zuen Jone Altuna zinegotziak.

Paco García, zentroko zuzendaria kontent eta hunkituta ikusi genuen "azkenean proiektu hau errealitate bihurtu da eta gainera puntako teknologia eta instalazio egokiek iritsi zaigu" azaldu zuen.

Ikasleak ere kontent daude instalazio hauekin, eta horregatik ez zuten kale egin. 100 ikasle bildu ziren aurkezpen



Hilabete irekia bazeraman ere, ofizialki aste honetan, asteartean inauguratu zen H.H.I.ren egoitza berria.

ekitaldian eta ondorengo lunch-ean.

Instalazioak

Modernitate guztiakin iritsi da Lasarte-Oriako H.H.I.ren eraikin berria. Artia enpresa izan da egoitzak gaur erakusten digun irudiaren sortzaile nagusia.

Guztira 750 metro karratu baino gehiago eta zortzi ikasgela dituen egoitza da. Hauetako gela bat informatika aretoa izango da eta beste batek laborategi-sukalde erabilpena du.

Gainera, ekitaldi handientzako bi ikasgela elkartu eta bakar batean bihurtu daitez-

ke, edukiera bikoiztuz.

Ikasgela hauetaz gain, idazkari eta zuzendaritza gela, ofimatika instalazioak jasotzen dituen gela, liburutegi osatua eta kafea hartzeko gela aurkitu ditzakegu.

Instalazio zabalak eta ikasle eta irakasle hauen beharretara moldatuak dira. •



Eguberrietako Jardunaldietan apaingarriak, sukaldaritza eta osasuna jorratu dira /4

KIROLA /6

Zizurkilgo gau krossean eta Antzar krossean garaipena lortu zuen Pili Bodegasek



17 urte dira, Lasarte-Oriako espetxe-pastoralak herriko presoei elkarkidetzak eskaintzen diena /5

**Gosariak
Hamaiketakoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Urtebetetzeak**

**ERREKATXO
JATEETXEA**

**KARTA
eta
EGUNEKO MENUA**



**NAGUSI BERRIAK
Ordutegi berria
Giro berria**

WIFI GUNEA

...
Oria Etorbidea Ibaiondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria

Neure kabuz



Urtekarria

Urteko azken zutabea idaztea egokitu zait gaurkoan, 2010. urteko azkena. Sinbolismoa joseriko testua litzateke horrelako egun batetarako egoki; Olentzerori idatziriko gutunaz, Jainkoari hurrengo urtean berdin jarraitzeko eskatu izanaz edo egunkari eta telebista gehienek egingo duten moduan, urteko gertakari garrantzitsuenaz mintzatu beharko nintzateke, beraz. Data berezietan bizi garela aipatu beharko nuke, "Hator hator" abestu eta gure herriko rotondetako argiei begira pozez bete eta irribarre egin beharko genukeen urteko egunetan gaudela esan, hain zuzen. Eta loteria, aberastea, ere ezingo nituzke ahaztu.

Maitasunaz ere hitz egin ahaliko nuke, bestela. Edo musikaz, orain urtebete egin gisara. Askatasunaz edo politikaz ere bai, noski. Eta gu guztion beldurrez, frustrazioez edo minez. Gabonak lirarteke guzti honen gainetik, ordea, gai, jomuga apropos. Gabonetan baikaude.

Gabonak dira nagusi; gabonak dira ekonomia, gabonak dira zorion, gabonak dira bake. Abendua amaitzean den honetan, ez dago kalean hotzez dardarka ari den pertsonarik; eta ezta bere buruaz beste egin nahi duenik ere; ez minbizirik, ez depresiorik, ez HIESik. Gabonak bakarrik.

Ez nuke, hala ere, esandako guzti hau kritikaitsu/huts baten gisara planteatu nahi; ez nizeke gabonen aurkako eraso merke bat soilik luzatu nahi. Honen ordez, nahiago dut, udazkenak negua dakarren gisara, abendua amaitu ostean urtarila ere helduko dela esan.

Taxio Arrizabalaga

Zorion-agurrak



David

Zorionak gurasoen eta Borjaren partetik. Zortzi muxe handi, txapel-dun!




Judith

Zorionak polita! Fuerte egin putz bostak itzaltzeko ondo. Garaiz, Alazne eta familia.



Haizea

Zorionak Haizea!!! Zazpi muxe zure familiaren partez.



Judith

Zorionak eta muxe haundia etxekoan partetik. 5 urtekin zintzoa izan behar da eta...



Unax

Zorionak potxo, gurasoen partetik, zure bigarren urtebetetzean.



Xabier

Zorionak, aurten badi-ra 15! Ondo pasa! Gurasoak, Josu eta Ane



Ane

Zorionak txapel-duna zure 18. urtebetetzean. Muxe handia ama, aita eta Noraren partetik.



Itsaso eta Araitx

Zorionak bikote! ... eta 3 asko dira. Oso ondo pasa eta marrubizko muxe pottoloak bio!



Libe

Zorionak txispita: hiru muxe erraldoi gure txikiarentzat, Enara, aita eta amaren partetik.



Eneko

Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Muxe handi bat zure familiaren partez



Maite

Zorionak eta oraingotan bazkaria gure kontu! Senarra eta semea.



Naroa

Zorionak mattia! Oso ondo pasa. 10 muxe pottolo, badakizu noren partetik.



Raquel

Zorionak Poztol, Mako eta Jalgunekin lagun partetik.

Azoka txikia

Harremanetarako: 676 397 120.

Eskaintza inmobiliarioak

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trastelekuarekin. Dena berrituta eta altzariekin. 3 balkoi eta oso eguzkitsua. Igogailua ere badu. 246.500 euro. Tel.: 686 969 112.

• Garaje alokatzen dut marra bat Atsokar auzoko Green plazan. Harremanetarako: 943 492 558.

Salerosketak

• Beta Ark LC 49c.c. motoa salgai. Ur bidez errefrigeratua. 2001ko iralak. 27000km. Gustuz seriekoa dago. Errebisio liburu sinatua, mantenimenduko fakturak. Itv 2012 arte. Beti garajejan.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Lan-eskaintzak

• Martxan dagoen eta bezeroak dituen ile-apaindegi bat alokatu nahi dugu Lasarte-Orian. Informazioa 665 701 023 zenbakian.

Lan-eskariak

• Umeak eta jende nagusia zaintzeko pertsona bat eskaintzen da. Harremanetarako, 635 217 362.

• Jende nagusia zaintzeko pertsona bat eskaintzen da. Interna edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako, 697 946 546.

• Andre euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Kontakurako: 618 097 676.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 17

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 18

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 19

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astelehena, 20

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astearte, 21

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteazkena, 22

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Osteguna, 23

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Ostirala, 24

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 25

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 26

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 27

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astearte, 28

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 29

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 30

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Heriotzak

• Eleuterio Iglesias Prieto, abenduaren 14an 78 urte zituela
• Emilio Izquierdo Muñoz, abenduaren 11n 100 urte zituela
• Dolores Zuheros Zuheros, abenduaren 3an 62 urte zituela
• Josefa Fraile Moreno, abenduaren 1ean 92 urte zituela

Jaiotzak

• Luken eta Telmo Egizabal Marcos, abenduaren 8an
• Ganix Gartzia Azpiroz, abenduaren 8an
• June eta Erin Iruretagoyena Jimenez, azaroaren 27an.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Gaztelekuko lanak aurrera doaz eta asteleheneko Udalbatzarrean onartu zenez *Scala arquitectura* enpresak du lanen zuzendaritza.

Urteko azken gaiak aztergai

Gaztelekuko lanen ardura, kreditua aldatzeko dosierra eta trafiko ordenantza berria onartu ziren azken udal batzarrean

Urteko azken udalbatzarra burutu zen lehengo astelehenan, abenduaren 13an. Bertan, Loidibarren HIE Gaztelekua kokatuko den eraikinari buruzko xehetasuna estudioa onetsi zen, PSEE, LOHP, Ezker abertzalea eta Ezker Batuaren aldeko bozkei esker; H1! eta PP alderdiak abstenitu egin ziren bozketan eta EAJ, aldiz, aurka agertu zen.

EAJko bozeramaileak aurkako jarreraren azalpenaren proiektuari buruzko informazio eskaera egin zion alkateari, "azterlanik egin ez den proiektu honi buruz herritarrei informazioa ematea da bidezkia, zein gastu dituen, nola ordainduko den, zein zerbitzu emango dituen..."

Alkateak erantzuna ematerakoan koherentzia eskatu zion EAJko ordezkariari: "izan ere, martxan dauden beste proiektu batzuetan ere ez da azterlanik egin eta horiei buruz ez duzu galdetzen". Alkateak azaldu zuenez, Gaztelekuko zerbitzuen hobekuntza bat dakar, "zerbitzuetako asko martxan dira dagoeneko, baina kokapen desberdinetan eta guztiak bateratuko ditugu".

Era honetara, Gaztelekuko lanen zuzendaritza, proiektua egin zuen *Scala arquitectura* enpresaren esku geratzen da.

Kredituak eta trafiko

Era berean, 2010 urteko ekitaldian kredituak aldatzeko bideratu diren dosierren berri eman eta kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko dosier

berri bat ere onartu zen, PSE-EEren aldeko bozkak eta oposizioaren abstentzioa dela eta.

Hauen barruan, Antonio Merceroren museo osatuko duten informazioa, filmak etab. lantzen ari den enpresaren ordainketa dago.

Azkenik, Estatuko legearen arabera, trafikoa, motordun ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasunaren arloan Udalaren zigor ahalmena erabiltzeko prozedura erregulatzen duen ordenantza aldaketa ere onartu zen, PSE-EE eta Ezker Batuari esker. Beste alderdi guztiak berriro ere abstenitu ziren.

Ezker abertzaleko zinegotziek, "lege hori, Udalaren autonomia murrizketa dela iruditzen zaigu," adierazi zuten haien bozka azaltzean. •

Ezker abertzalearen legeztapenaren aldeko 'Lip Dub'á bihar filmatuko da

Ezker abertzalearen eskutik *Lip Dub* fenomeno iritsiko da bihar Lasarte-Oriara. Eguerdiko 13:30an, Nagusi Kanean, Ilargi tabernaren parean egingo da grabaketa eta bideoklip formatu berri honetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diete legeztapenari babesa eman nahi dion demokrazia orori.

Ekimen erraldoi baten bila

Ezker Abertzaleak Iruñean proiektu politiko eta antolatzaileraren aurkezpenean egin ostean, ekimen ezberdinen bidez bere legeztapenaren aldeko aldarria egingo zuela eman zuen aditzera.

Gauzak honela, abenduaren 18an legeztapenaren alde euskal herritarrek kalera atera eta ekimen erraldoi batean parte hartzeko eskatu dute.

Era honetara, euskaldun gehiengoak proiektu politiko guztientzako aukera berdintasuna aldarrikatzen duela erakutsi dezan.

Ekimena herri desberdinetan egingo den giza kateetan izango du oinarri. Ezker abertzaleko ordezkariak azaldu digutenez, asmoa horiek grabatu eta guztiak bateratuz bideo bat osatzea da.

Horregatik, ekimen alai eta moderno honetan lasarteoriatarrak parte hartzea gonbidatu

nahi dituzte. Irudi mugikorra, ez estatikoa da bilatzen dena. Beraz, ekimeneko parte hartzaileak sorgin dantzako musika oinarri izanik, *Lip Dub* txiki baten antzera, dantzatu beharko dute.

Guztiak dute lekua

Ezker abertzaleko ordezkariak azaldu digutenez, garrantzitsua da herritarrek talde gisa, edota partikularik identifikatzen dituen gauza batekin agertzea; banderatxoa, zapia, brusa, kamiseta, pankarta...

Era honetara, lasarteoriatarrak legeztapenaren aldeko adierazpen dibertigarrian parte hartzeko aukera dute bihar. •

DANOK KIDE

Jaiotzak aurkezteko egunak gertu

Danok Kide elkarteak antolatzen duen Jaiotzen lehiaketan parte hartzeko asmoa duten herritarrek jaiotzak prestatzeko azken egunak dituzte, izan ere, antolatzaileek gogora arazten dute abenduaren 20 eta 21ean, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara aurkeztu behar direla lanak, Danok Kideko egoitzean, Blas de Lezo kaleko 11-13 zenbakian.

Banaka edo taldeka hartu daiteke parte lehiaketan, baina lan bakarra aurkeztuz. Jaiotzarekin batera, gutunazal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzirik entregatu behar da.

Jaiotzak, gehienez, 80x60 cm-tako dimentsioak izango ditu eta ez da onartuko hondo sendorik ez duen jaiotzarik, ezta lehiaketara aurretik aurkeztutako proiekturik ere. •

LITERATURA ATEOA

Rafa Lopezen lana berriro ere argitaratua

Rafa Lopez herritarren *Verde religión* kontaketa argitaratu dute, *Tierra de fuego* taldeak sustatutako Literatura Atearen II. Sari-ketako liburuan eta bigarren aldia da herritar honen kontakizuna kontuan izaten dena. Lopezen kontakizunaz gain, *La Colmena* liburutegi eta argitaletxeak kaleratutako liburua honetan ateismoaren inguruko 7 idazleren 20 bat lan bildu dira.

Liburua eskuratu nahi duenak, Obelix tabernan du aukera, bertan 5 eurotan dago salgai. Lortutako irabaziaz ateismoa aldarrikatzen duten ekimenetan eta apostasiaren aldeko kanpainetan erabiliko da. •



Herrian Alboka abesbatza izango da Eguberrietako doinuak ekarriko dituen lehengoa.

Eguberrietako doinuak kultur etxean

Aste bete geratzen da Gabon gau egunerako, gabon kantak abesten diren eguna. Baina, egun eta gau horretaz gain, gure herrian abenduaren 19 eta 20ean, Eguberrietako doinuak entzungo dira Manuel Lekuona kultur etxean, Alboka abesbatza eta Udal Musika eskolaren eskutik.

Alboka Abesbatza

Igande eguerdian, dugu lehenengo hitzordua, Alboka abesbatzak Eguberrietako kontzertua eskainiko baitu.

Kontzertura hurbiltzen diren herritarrek garai eta nazio desberdinetako gabon kantak entzuteko aukera izango dute. Ohikoak diren *Adeste Fideles*, *Gabon gaua*, *Olentzero*, *Oi beethleem* eta *Ator Ator* kantak edo nazioarrek diren *Hark the herald doinu* ingelesa, *Go tell it* amerikarra edo *Maria durch*

ein dornwald ging alemaniarra abestuko ditu herriko abesbatzak.

Gainera, *Los Campanilleiros* abestian Semblante Andaluz elkarte talde baten laguntza izango du Alboka Abesbatzak.

Musika eskola

Eta Eguberrietako girori jarraitzea emateko, Udal Musika eskolako ikasle eta irakasleek astelehenan, abenduaren 20an, 19:00etatik aurrera, kultur etxeko aretoan jardungo dira.

Eskolako txikiak kantuan, musika tresna desberdinen doinuak, abesbatza eta taldeak ikusi ahaliko dira taula gainean.

Eguberri giroan sartzen joateko aukera ona, beraz, Alboka abesbatzak eta Udal Musika eskolak aste honetan emango dutena. •

Eguberri ekonomiko eta osasuntsuak

■ Herritar ugari hurbildu da Manuel Lekuona kultur etxean egin diren Eguberrietako jardunaldietara ■ Apaingarriak, sukaldaritza eta osasuna izan dira aurten jorratu diren gaiak

Modu ekonomikoan etxea nola apaindu eta Eguberri edo Gabon gauerako plater nagusia nola egin ikasi dute egun hauetan burutu diren Eguberrietako jardunaldietara hurbildu ziren herritarrek. Bart, diabeteseko gaixoentzat aholkuak entzuteaz gain, glukosaren gehiegizko kontsumoak osasunean izan ditzaketen ondorioen berri ere izan zuten.

Eguberrietako jardunaldien lehenengo saioan haria, puxika bat, kola zuria eta ura Eguberrietako zuhaitzerako bola bat egiteko nahikoak direla erakutsi zuen Arantxa Martin *Ormazabal* loradendako lagunak.

Honetaz gain, Ramon Ormazabal eta Arantxa Martinek, besteak beste, Pazko loreen loreontzia apaintzeko modu desberdinak edo sagarrek mahai zentro naturala eta dibertigarria nola egin azaldu zieten hitzaldi aretorea hurbildu ziren herritarrei.

Eguberrietako menua

Bestalde, asteazkenean, *Lurra XXI* tabernako sukaldaria den Jose Ramon Garzarainek hitzaldi aretorea bertaratu ziren gizon eta emakumeei ondoan argitaratzen dugun *Legatza porru eta ganbaz*

betea errezeta egiten irakatsi zien.

Era berean, haien galderak erantzun eta bere aholkuak eskaini zizkien, legatza nola moztu, saltsa nola zuritu, etab.

Eguberriak eta dieta

Eguberrietan gainera, dieta orekatua alde batera uzten da. Horregatik, bart jardunaldiei amaiera emateko, Ziortza Marzan dietistak eta diabetes-hezitzaileak gaixotasun honen nondik norakoak, nola sortzen den, zer sortzen duen, zein mota dauden etab. azaldu zuten.

Era berean, diabetes gaixoek eraman behar duten dieta motari buruz mintzo zen, batez ere, datozen egun hauetan.

Ostean, herritarren galderak erantzun zituen. •



Ramon Ormazabal eta Arantxa Martinek etxea gorri eta zilar koloreetan apaintzeko ideiak eman zituzten.

Legatza porru eta ganbaz betea

Lau pertsonentzako osagarriak:

Tipula
Bi porru
Kalabazina
15 txirla
Esnegain zorrotada
75 gr. gurin
Oliba olio zorrotada
Gatz pixka bat
½ litro arrain salda
75 gr. irin
Tamainazko legatza
10 ganba

Egiteko era:

Lehenengo *veluté* bat egin behar da. Horretarako, bi porruak juliana erara moztuak, irina eta gurina behar dira. Porrua lehenengo erdi egosi eta gero guztiz egosi behar da. Hori alde batera utzi eta gurina eta irina batu-



ko dira *rouge* bat eginez eta ostean, masa mugituz, ura eta egositako porrua gehituko zaio. Nahasketa egosia dagoenean, sutik atera eta ganba gordinak bota, *veluté* aren beroarekin egingo dira.

Jarrain, saltsa prestatuko da. Kubotan moztutako tipula erdi egosi, baita kalabazina ere. Arrain salda gehitu eta ongi egosia dagoenean, puregailuan guztia xehatu.

Esnegain pixka bat gehitu, saltsa zuritu nahiez gero. Xehatutako saltsa sutan jarri eta txirlak sartu, saltsak hauen zaporea hartuko du.

Behin saltsa egina eta *veluté*-a hotza dagoela, legatza *veluté*-arekin bete eta labean edo arrautzatzatua egin.

Jarraian, legatza plateran jarri eta saltsa beroa gainetik bota. •



Ziortza Marzan diabetes-hezitzaileak aholkuak eskaini zizkien herritarrei.



ANAIAK

JANTZI - DENDA

40 URTE ZUEKIN!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

Ahaztu behar ez diren herritarrak

- San Pedro Eliza barruko taldea den Espetxe-Pastoralak presoek Gabonak hurbiltzen dizkie
- Presoek eta familiakideei babes emozionala eta juridikoa eskaintzen diete urte osoan zehar

San Pedro Elizaren barruan talde ezberdinak aurkitzen ditugu behartsuenen alde lanean. Hauen artean espetxe-pastorala dugu, herriko presoek gertutasuna eta babesa eskainiz. Gabonak hurbil ditugula aste honetan zehar presoek euren gabonsaria edo oparia emateko parrokiaren produktu ezberdinen bilketa egin dute. Presoak ez ahazteko data garrantzitsuak datozkigu.

ITXASO MORENO

Urte ugari dira espetxe-pastorala Lasarte-Orian lanean hasi zela, 17 urte hain zuzen ere. Herriko presoak ez ahaztea eta hauei gertutasuna eta babes emozionala eta juridikoa eskaintzea dute helburu. Orotara 18 preso lasarteoriatar daude kartzelatan. Hauetako 7 Martutenen eta beste 11 estatuko espetxe ezberdinetan banaturik.

Lasarte-Oriako herriarekin harremana ez galtzea eta hor norbait dutela oroitu nahi diete herriko presoek espetxe-pastoraletik "bakarrik aradela esan ez dezaten ahalegintzen gara, horregatik asko ez bada ere guk emateko duguna eskaintzen diegu" azaltzen dute. Lan polita eta esker onekoa dela esaten dute: "euren bizitzan murgiltzen zara eta zure ahalmenen arabera laguntzen saiatzen zara".

Orotara sei herritar dira presoekin egiten den lan guztiaz arduratzen direnak, eurak ere presoek senitartekoekin harremanetan egoten dira "eta behar gaituztenean laguntzeko prest egoten gara".

Askotan, gertaera baten aurrean ez dakite zer egin "gure pastoralarean abokatu boluntarioak ditugu momentu horietan informatzeko" azaldu digute.

Burutzen dituzten lanak

Herrikoak diren presoek laguntza eta babes juridikoa emateaz gain, proiektu ugari aurrera eramaten dituzte. Hau guztia, aurrera eraman ahal izateko Caritas-ek ematen dien diru laguntza daukate.

"Egiten ditugunak gauza txikiak badira ere, pozez hartzen dituzte," adierazi dute. Orain Gabonak hurbiltzen direla, presoek familiakoei bi pertsonentzako bidai bat, joan-etorria, oparitzen diete. Honetaz gain, preso bakoitzari 90 euro ematen diete eta Martuteneko espetxean dauden presoek ere gabonsaria eramaten diete.

Gabonsaria

Herritarrak bere borondatez ematen dituzten gauzekin osatzen dute gabonsaria. Horretarako aste honetan zehar bilketa egin dute.

Espetxe-Pastoralak hainbat produktu jaso ditu, besteak beste, barruko arropa berria, galtzerdiak, tabakoa eta metxeroak, hortzetako pasta eta eskuilak, gutun-azalak eta zigituak, bainu-gel, desodorante barra (kristalezkoak izan ezik), azazkal-moztekoak, pilak, turroi biguna eta bainu-nuntzako txankletak.

Gauza hauetaz gain, galtzerdiak ere oparitzen dizkiete eguberrietan presoek "kasu



Astean zehar, herritarren aportazioak jaso dituzte espetxe-pastoraleko kideak San Pedro elizaren Caritaseko bulegoan.

honetan preso guztiei, hurbil eta urriti daudenei".

Galtzerdiak dendetakoak edota eskuz eginikoak izan daitezke "jende asko hurbiltzen zaigu beraiek egindako galtzerdiak eskaintzera, eta horien barruan Biyak Bat zaharren elkarteko emakumeak ditugu."

Eskakizunak

Presoak eta euren familiak laguntzeaz gain bizi duten egoeran murgiltzen dira eta aldarrikapen batzuk ere egin dituzte.

Batetik, preso politikoak etxetik hurbil dauden espetxetara ekartzea eta bestetik, ihesa duten presoak beraien gaixotasuna hobeto eraman ahal izateko euren etxetara eramatea eskatzen dute: "Martuteneko espetxean ikusten dugu presoek bizi kalitatea behera doala, beraz, gaixo

daudenak beraien azken egunak ahalik eta hobekien igaro ditzaten familiakideen babesean izan dadila eskatzen dugu".

Herriko preso bat, aipatutako azken egoera honetan dago, "ez zaio asko geratzen, eta espetxean dagoen egoera kontuan hartuta gutxiago". Espetxetan dauden medikuak eta azterketak egiteko makinariak "ez dira guk kanpoan ditugunak bezain onak".

Bi eskakizun hauek Espetxe instituzioen zuzendariari bidali dizkiete "inoiz ez dugu erantzunik jaso, eta jada 17 urte pasa dira lehenengo eskutitza bidali genuenetik".

Beraien berri

Gauzak ematez gain presoekin harreman estua dute "eskutitzak bidaltzen dizkiegu, eguberrietan postaltxoak... urte osoan zehar eurekin

harremana mantentzen saiatzen gara". Presoak ez dira ahazten "beraietaz oroitzen garelako sentiarazi nahi diegu".

Eskutitzak bidaltzeaz gain, Lasarte-Oria herriarekin duten harremana ez itzaltzea dute helburu "horregatik urtean bitan ateratzen den Lasarte-Oria aldizkaria bidaltzeaz arduratzen gara." Herriaren parte direnez herriaren berri jakin behar dutela uste dute pastorelekoek.

Bisitak

Eskutitzak, opariak, babesa... espetxe-pastoralaren lana haratago doa, "hilabetean behin Martuteneko espetxera joaten gara bertako presoak bisitatzen".

Espetxeetan zaila da sartzea "baina guk Martuteneko kaperauaren bitartez lortzen dugu baimena, bestela gaizki edukiko genuke". •



**KALITATEA
PREZIO JUSTUAN**

ORDUTEGIA

Astelehenetan 09:00etatik 14:00etara
Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara
Astearte eta ostiralean arratsaldean 17:00etatik 19:30era

**GURE BEZEROEI:
GABON ZORIONTSUAK
PASA ITZAZUE
ETA
URTEBERRI ON!**

**JATEN
DUGUNA GARA!**

**Nagusia 35
Lasarte-Oria
Tel.:943 371946**

Leire

Arrandegia

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 18

10:00etan, Ostadar - Olereta kafea (Partehartze infantil) Michelinen.
11:30etan, Ostadar - Antiguoko (Infantilen Ohorezko Maila, txapeldu-nen fasea) Michelinen.
15:30etan, Ostadar - Billabona (I. Jubenila) Michelinen.
17:15etan, Ostadar - Hernani (Emakumezkoen seniorra) Michelinen.

12:30etan, Lazkao - Ostadar (I. Kadetea) Arizti Handi, Lazkao.
16:00etan, Ordizia - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera) Altamira, Ordizia.
16:30etan, Beti Ona - Ostadar (Erregional Gorena) Beraun, Errenteria.
17:30etan, Vasconia - Texas Lasartearra (I. Erregionala) Puio, Donostian.



Igandea 19

10:30etan, Ostadar - Andoingo Ontzerri (I. Erregionala) Michelinen.

10:45etan, Ostadar - Ordizia (Alebinak) San Juan, Azkoitia.
12:00etan, Vasconia - Ostadar (Infantil txikiak, kopa) Puio, Donostian.
12:45etan, Real Union - Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila, igoera) GAL, Iruen.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 17

HERRIKO TXAPELKETA
Kirol guneko kantzax
20:30etan, Indaux - Ilargi

Larunbata 18

17:45etan, ISU Leioak - Zarautz (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol guneko kantzax
09:15etan, Ayete - IOB H.K.
10:15etan, Kataras - S. Andaluz
11:15etan, Kalaberri Z - ISU Leioak
12:15etan, Buenetxea - Ainhua
13:15etan, Lekuona Mena - Izkiña
15:00etan, Izarra - Illun
16:00etan, Viña del Mar - Obelix

Igandea 19

10:30etan, Aldaz H.K. - Soloarte (Nasional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol guneko kantzax
10:00etan, Oria kris. - Naiban
11:00etan, Epel - Morrison's

PILOTA

Larunbata 18

09:15etan, Intza I - Antigua 2

(Gipuzkoako trinketa txapelketa, eskuz banaka kadetea) Trinketan.
09:15etan, Hernani 2 - Intza 4 (Gipuzkoako trinketa txapelketa, eskuz banaka kadetea) Trinketan.
15:00etan, Oiarpe 3 - Intza 2 (Gipuzkoako trinketa txapelketa, eskuz banaka kadetea) Trinketan.
16:00etan, Intza I - Intza 2 (Gipuzkoako txapelketako final erdia, eskuz banaka infantil I. urtea) Michelingo pilotalekuan.

14:15etan, Hernani 2 - Intza (Gipuzkoako txapelketako finalerdia, eskuz banaka alebina 2. urtea) Hernanin.

IGERIKETA

Larunbata 18

Egun osoa, Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutuak Gipuzkoako Kluben arteko Kopan parte hartuko dute, Azpeitian.

Igandea 19

Egun osoa, Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutuak Gipuzkoako Kluben arteko Kopan parte hartuko dute, Azpeitian.

ATLETISMOA

Larunbata 18

10:30etan, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburuko pista lehiaketako proba dute, Hernanin.
16:45etan, LOKEko atleta gazteek Partehartze libreko proba dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

JUDO A

Igandea 19

Goizean, LOKEko judoka infantilek Gipuzkoako Taldekako txapelketa dute, Hernanin.



TXIRRINDULARITZA

Larunbata 18

10:00etan, Bazpi Txirrindularitza eskola gazteak Oratiko Ziklo-kross Sari Handian parte hartuko dute, Oratín.

ESKOLA KIROLA

Larunbata 18

09:30etik 10:45era, Hastapen kiroleko topaketa dute Landaberriko LH2 mailako eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko taldeak, kiroldegian.
10:45etik 12:00etara, Hastapen kiroleko topaketa dute Landaberriko LHI mailako taldeak, kiroldegian.
12:45etik 14:00etara, LH5 eta LH6 mailako haurrek, hau da, alebinek futbol topaketa dute, Michelinen.

Pili Bodegas Zizurkilgo eta Lazkaoko krosetan garaile

■ Ostadarreko beste hainbat korrikalarik ere parte hartu zuten Zizurkilgo proban ■ Ostadarrek bazkide kanpaina jarri du abian

Asteburuan, abenduaren 11 eta 12an, Zizurkilgo gau krosa eta Lazkaoko Antzar krosa-Eñaut Aldanondo Oroimenezkoa burutu ziren eta bietan Pili Bodegas izan zen garaile.

Lasarte-Orian bizi den korrikalarik ez zuen arazorik izan Zizurkilgo proban, 25 minutu eta 42 segunduko denbora egin zuen bigarrenari, Nerea Etxeberria azpetiarrari ia minutuko errenta atereaz; Antzar krosean, ordea, azken metroetara arte, ez zuen Rosi Talavera atzean utzi eta garaipena lortu zuen, 21:06 denbora eginaz.

Piliz gain, Zizurkilgo gau krosean Ostadarreko atletismo taldeko lagunak eta herritar batzuk ere egon ziren, hauek ziren haien denborak: Julen Ollokiegi, 27:09; Juan Maria Marcos, 27:12; Jose Ignacio Elvira, 27:32; Joseba Iparraguirre, 29:21; Mikel Ormazabal, 29:40; Jose Ramon Mendizabal, 30:56; Asier Avila, 31:44; Joakin Brit, 32:04; Ismael Garcia, 32:38; Iñaki Letamendi, 33:31; Leandro Romo, 35:12; Maria Penafiel, 35:14; Xabier Prada, 36:15 eta Jesus Balerdi, 36:17.

Bazkide kanpaina

Arestian aipatutako atletismo taldea, Lasarte-Oria Bai krossa, Kross Txikia, areto-futboleko txapelketa, gomazko pala txapelketa, Moso memoriala, San Pedro jaietako bola-joko jaurtitzek, Garcia-Egaña oroimenez-



Pili Bodegas ederkir ibili zen Zizurkilgo gau krosean.

Arg: Festak.com

koa, txirrindularitza taldea, mendi taldea, Beltza-Ostadar errugbi eskola, tenisa, futbol eskola eta federatutako 12 futbol talde, hori da, Ostadar Kirol fundazioaren esku dauden talde eta lehiaketak.

"Udalak emandako laguntza 1578 eurotakoa da eta kopuru horrekin Kirol fundazioak herriarekiko duen konpromisoa aurrera eramatea zail du," jakin arazi dute kirol elkartetik.

Herritarren eta babesleen laguntzari esker, lan honi jarraipena ematen zaio eta, horregatik, horiei guztiei elkarrekin eskerrak eman nahi dizkie.

Era berean, bazkide ez direnei kirol elkarteak kide izateko deia egiten die, 2011. urteko

bazkideen kanpaina eginaz. Abenduaren 23a arte egongo da zabalik eta bazkide egitea Ostadarren egoitzan, Geltoki kalea 25, egingo da arratsaldeko, 16:00ak eta 20:00ak bitartean.

Infante Euskadiko selekzioa

Honetaz gain, Ostadarreko emakumeen kadete taldean dabilen Miriam Infantek Euskadiko selekzioarako deia jaso du, berriro ere.

Valentziako Erkidegoan, gaur hasi eta igandera arte, jokatu den Espainiako txapelketako lehenengo fasean parte hartuko du Lasarte-Oriako futbolari gazteak. •

Kirol guneak alokatzeko epea zabalik

Lasarte Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak Kirol Guneko pilotalekua eta pista, Kiroldegiko pista edo Trinketa 2011 urtean epe luzerako alokatzeko aukera eskaintzen du.

Horretarako, abenduaren 20a bitarteko epea ireki du interesatuek udalaren kirol instalazioetako atarian eskakera egin dezaten.

Zozketa

Orduak, abenduaren 21ean 19:00etan, Kiroldegian egingo den zozketan banatuko dira.

Zozketara hurbiltzen den eskatzaile bakoitzari zenbaki bat emango zaio, ez beste inori.

Zenbakiak atera ahala orduak aukeratuko dira eta, Kirol zerbitzuak azaldu due-



Kirol guneko pista da epe luzeko akura duen instalazioetako bat.

nez, abonatuak lehenetsuna izango dute.

Ordainketa

Instalazioaren akuraren ordainketa, banku bidez helbideratua izango da eta bi zatitan egingo

da. Ez abonatuak, gainera, sarrera ordainduko dute.

Kirol Zerbitzuak instalazioa behar izanez gero, aste bat lehenago abisua emango du. Kasu horretan ordainduta-ko dirua itzuliko da. •

Egunero

Erakusketa

METAMORFOSIAZ, Jasone Irigoien margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Erakusketa

DENBORAREN MUGETAN, Migel Angel Oriberen erakusketa ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Larunbata, 18

Antzerkia

100 METROS CUADRADOS antzezlan eskainiko du Txalo produkzioak taldeak. Sarrera, 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Igandea, 19

Kontzertua

ALBOKA ABESBATZAK Eguberrietako kontzertua eskainiko du. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:00etan.

Zinea

GRU, MI VILLANO FAVORITO haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Astelehena, 20

Tailerra

EGUBERRIETAKO POSTALAK egingo dituzte familia eta lagunekin. Atsotakar zaharren egoitzan, 17:30ean.

Kontzertua

UDAL MUSIKA ESKOLAK Gabonetako kontzertua eskainiko du. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Astearte, 21

Hitzaldia

GAITASUN KOGNITIBOEN BULTZAPENEN SAIO IREKIA izango dute



Rock itsua gaur kulturetxean

IBON CASASEK emanaldia eskainiko du Xpression eta Udalak sinatutako Gazte Kontzertuen hitzarmenaren barruan. *La pasta por delante* bere lehen diskoaren hainbat abesti aurreratuko ditu. Maiatzean eman zuen kontzertuan bezala, ziur entzuleak gustura utziko dituela Ibon Casasek.

Gaur, ostirala 17
KULTURETXEKO KAFETEGIAN
20:00ETAN

11:00etan. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera gozogintza tailerra izango dute eguneko zentroan eta egoitzan. Atsotakar zaharren egoitzan, 11:00etatik aurrera.

Festa

SANTO TOMAS JAIA ospatuko da eta txerria ikusgai egongo da, taloak eta gaztainak salgai eta erromeria ere izango da. Sagardotegi kalean, 17:00etan, EUSKARAZ.

Asteazkena, 22

Haur parkea

EGUBERRIETAKO HAUR PARKEA zabalik egongo da abendua-

ren amaiera arte. Michelingo Udal Kirolgunea, egun osoan.

Kontzertua

MUSIKÉ TEKNE taldearen emanaldia. Sarrera, doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Erakustaldia

SOINKETA TALDEAREN erakustaldia. 11:40ean Atsotakarrek langileen emanaldia. Arratsaldean berriz 16:00etan fabulen irakurketa eta hausnarketa Eguneako zentroan eta 17:30ean aukeratutako ipuinak antzetzuko dira. Atsotakar zaharren egoitzan, 11:00etatik aurrera.

filmik egon gabe. Orain arte beti txandakatzen zituzten euskaraz eta erdarazko pelikulak. Azkenotan, berriz, erdara da jaun eta jabe herriko zinean. Zergatik?

Hori zela eta, deitu genuen telefonoz kultur etxera horren berri jakin nahian. Bai, lortu genuen arduradun batekin hitz egitea, eta distribuidorearenean zegoela arazoa esan zigun, baina guk erantzun genion badakigula Donostian eta, umeentzako euskarazko pelikulak botatzen dituztela, eta orduan zein den azken arrazoia berak ez zekienez, telefonoa uzteko esan zigun eta behar bezala izango zela gure jakin mina asetua. Gaur arte!

Bestalde, gure arrazoia, xumea bezain zaila da, antza, gaur eta hemen, halaber gure hautua: euskaraz osotaro bizi ahal izatea. Badirudi pentsatzen eta esaten ez dena dela, "baina erdaraz badakigu denok eta!" Horrexegatik, hain zuzen ere, udal honetatik espero genezakeena da euskararen aldeko diskriminazioa egite nabaria, politikoki zein sozialki nola kulturalki.

Bai horixe! Aurrera ari gara "euskararekin bat" egiten. Alabaina, euskarak elkitzak behar ditu, lelo oportunistak eta sinbolikoez haratago.

Montse Simon

IX. Multimuskala

MICHELINGO KIROL GUNEAN



Ostirala, 17

20:00 KARPAREN IREKIERA EKITALDIA

21:00 ARRAMAZKA, ZEA MAYS, MARIANITOX BLAI, DJ BULL

Larunbata, 18

12:00 KARPAREN IREKIERA

12:30 MANIFA MUSIKATUA Trikiarrok kalejira herrian zehar.

14:00 BABARRUN JANA: bazkaloste musikak.

17:00 TABERNETAKO KONZERTUEN HASIERA:

17:00 MADELEINE eta MILDAN BEHERA Jalgin.

17:00 HILOTZ eta DESEGIN Abenden.

18:00 AURKA eta YELLOW PACE Sustrain.

19:00 ALL BECAME DUST, OREINDIK eta 085 Xirimirin.

20:00 KALEAN Obeliken.

21:00 DJ GAUA Ilargin.

KARAOKEA Timon tabernan.

18:30 KARPAN: BLAKA, NAIZ ROXA, COHEN, MORE JAIA KOLEKTIBOA.

Igandea, 19

LASARTE-ORIAKO EUSKAL JAIA Denok baserritarrez jantzi!

11:00 KALEJIRA ETA KANTUJIRA HERRIAN ZEHAR trikitilari, txistulari eta Xumela abesbatza-



ren eskutik.

12:30 GUNEAREN IREKIERA: HAMAIKETAKO eta SAGARDO DASTATZEA trikitilariekin.

JOKU HERRIKOIAK.

14:00 HERRI BAZKARI BERTSO-MUSIKATUA (kalabaza krema eta okela saltsan): FERMIN BALENTZIA abeslaria eta UNAI GAZTELUMENDI eta BENAT IGUARAN bertsolariak.

17:00 LASARTEARRAK DANTZARA! Erromeria Erketz, Amalura ta Kukukarekin.

19:00 ITZARTU taldearen erromeria eta asteburuari agurra.

Oharrak

Gabonetako txokoak

Takunek Eguberrietako Txokoak antolatu ditu. Izena emateko epea zabalik dago eta apuntatzen diren lehenengo 40 haurrak hartuko dira. Hiru aukera ezberdin daude izena emateko: lehenengo astea, bigarrena edo biak. Informazio gehiagorako deitu 943 371448 telefonora edo Takunetik edo Amaraun ludotekatik pasa zaitezke.

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 koordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroen truke. Bildutako dirua, janariaren euskarabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

Arrieskaltetako loteria

Loteria erosi duten bazkide horiei jakin arazi nahi zaie, dezimoak jasotzera pasa behar direla elkartetik larunbat arratsaldean 16:00etatik 20:00etara.

Erketzen Olentzeroko entsaioak

Olentzeroren etorrera delata, Lasarte-Oriako inguruko baserrietan barrena kantari atera nahi duenak aurtan ere aukera paregabea izango du Erketz EDTekin. Horretarako entsaio bat antolatu dute abenduaren 17an. Entsaioak Zumaburu eskolan izango dira 20:00etan.

Odol ateratzak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzak egingo dituzte Osasun Zentroan abenduaren 27an arratsaldeko 18:30etik 20:00era. Anima zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Olentzero Zabaleta Auzoan

Urtero bezala Olentzero 24an iritsiko da Zabaleta auzora. Goizeko 10:00etan Antonio Plazatik irten eta hurbiltzen diren ume guztiak hurbiletik ikusteko aukera izango dute. Entsegua eta bilera abenduaren 22an, asteazkenean 19:30etan egingo da auzoko plazan.

Erraldoiak dantzatzeko

Erraldoiak dantzatzeko ikasteko Arrieskaltetako elkartek ikastaroa antolatu du. Interesa izanez gero, elkartetik pasa edo arrieskalteta@gmail.com helbidera mezu bat bidali.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Haurrentzako filmak eta euskara

Zer egin haurrekin igande arratsalde hotz eta euritsu batea? Zinea joatea ez da plan txarrik izaten. Zuk galdetzen diozu alabari -edo semeari-, "nahi al duzu zine-ira joan?" eta "biiii!" pozpozik erantzuten dizu. Gero erak galdetzen dizu zuri, "zer pelikula botako dute? Erdaraz edo euskaraz?" eta "erdaraz" erantzutean sumatzen diozu galdatze keinu bat, "erdaraz? Beti erdaraz?"

Hala da. Egitate bat da gutxienez hiru hilabetetik hona daramagula euskarazko



IZARRA BITXITEGIA



Geltoki kalea 19, Tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g, Tel.: 943 364945



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY A.I.E.

